

» DISKOA

# Posearen atzean



Iker Barandiaran  
@IkerBarandiara

Bibotea, osabaren armairutik berreskuratu-tako arropak, koreografia bitxiak, agertokian ikusleei bizkarra ematea, instrumenturik eta odol gabeko bideoklipa, diskoaren izenburua alemanez, *arty* kutsu handia... Zer da hau? Zahartzen ari naiz edo gazteriak bestelako oinarriak, erabat desberdinak, ditu? Biak! Bai, pose handiko garaiak bizi ditugu, tontakeria ere barra-barra batzuetan, baina badira horren guztiaren atzean gailentzen diren taldeak. Halakoa iruditu zait Vulk talde bilbotarra.


Taldekideek batez beste, 26 urte dituzte; dagoeneko hiruzpalau urte daramatzate proiektu honekin eta beraien gaztetasunari trufa eginez musika ezagutza handia erakusten dute. Lehen kolpean post-punk edo after-punk lerroburuan kokatu ahal dituzu, Joy Division ikur, baina azal azpian geruza gehiago agertzen dira eta emaitza oso-oso aberatsa da.

*Beat Kamerlanden* laukotearen lehen lan luzea da. Azala, kontrazala eta diskoaren galleta artista desberdinek eginak dira, jakina. Gainera, 80ko hamarkadako usadio bat gurera ekarriz, diskoak posterra dakar! *Unique position* hipnotikoa da tarteka, iluna eta pausatua. Andonik ingelesez abesterakoan duen dikzioa sinesgarria da eta kantuak magnetismoa dauka; sasi-elektro-

## Beat Kamerlanden VULK

Elsa / Mayo Records, 2017

Vulk talde bilbotarra.



nikarekin jostari ia espiralean doa. *Something internal* hit! nabarmena da: erlojuaren pareko erritmo zehatza, riff minimalista baina sarkorra, teklatu ambientalak eta melodia borobil bat, akaberan distortsionatuago, espazialago eta noise-ago bilakatu arte. *A contemporary statement*-ek erritmo aldaketa handiak ditu eta The Fall, Fugazi eta The Ex-en arteko biderketa dirudi. *Zaldia burning* beste klasiko bat da: instrumentalki oso aberatsa eta indartsua; Pixies presente badute ere, New Order-ek agintzen du.

B aldea *From found to stage* pilula instrumental laburrak irekitzen du. Horri jarraitzen dio *Sure drop* post-hardcore zapalgailuak, hazten, hazten eta garatzen doana Sheelac eta Hammerhead ezagutu arte, eta ondoren psikodelia eta sasi-elektronikaren gauan galtzen dena. *Hugo hall* noise-pop distiratsua da, itsaskorra eta dantzagarria. *Brazil*-ek ezinbestez mugiarazten zaituen erritmo eroa du eta harra-patzen zaituen melodia iluna baina kutsakorra. Disko ixteko ardura *Slow attack on canvas*, azidotan blaitutako Pixies. ■